



Idatzizko Kulturaren Iraunkortasunerako Behatokia

2023ko uztaila



Sarrera

Idatzizko Kulturaren Iraunkortasunerako Behatokia CEDRO ordezkari duen sektore editorialaren ekimen bat da. Behatokiaren helburu nagusia da, Espainian, sektore editorialeko egile-eskubideen egoera aztertzea, sektorearen iraunkortasuna bermatzeko egin behar diren aldaketak jakinarazteko eta sustatzeko asmoz. Izan ere, sektorek, oro har, BPGra % 1 inguruko ekarpena egiten du. Espainiako industria editorialak, nazioartean, hirugarren atzerriko merkatu-kuota handiena (% 11,4) du. Aurretik Kanada (% 36,6) eta Erresuma Batua (% 35,1) besterik ez ditu, Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundearen (World Intellectual Property Organization, WIPO) 2020ko datuen arabera.

Behatoki hau prestatzeko, Carlos III unibertsitateko Enpresa-ekonomia departamentuko Julio Cerviño irakasleak zuzendu duen *Análisis comparado de la situación de los derechos de autor por usos secundarios de los contenidos editoriales en Europa* azterketak biltzen dituen emaitzak eta ondorioak eta Qbo Investigación y Estrategia erakundeko zuzendari exekutiboa den Héctor Jiménezek zuzendutako *Piratería en línea de contenidos editoriales en español* txostena baliatu dira.

Azterketa bietatik ondorioztatzen da Espainiako sektore editoriala lehiarako desabantaila-egoeran dagoela Europarekin alderatuta, liburuen, egunkarien, aldizkarien eta partituren **berrerabilpenaren** –fotokopia, digitalizazioa, komunikazio publikoa, erreprodukzioa, partekatzea, eta abar– ondorioz sortutako egile-eskubideei dagokienez. Egoera hori larriagotu egin da gaztelaniazko eduki editorialen lapurreten hazkundearekin, bereziki azkenaldian, mezularitza-zerbitzuen (besteak beste, Whatsapp) bidez. Izan ere, hori da gaur egun obra editorialak legez kontra atzitzeko kanal nagusia. **Agertoki horrek arriskuan jartzen ditu Espainiako idatzizko kulturaren iraunkortasuna eta osasun demokratikoa.**

Merkatu legala: eduki editorialen
berrerabilpenaren ordainsaria
Europar

01





Egile-eskubideak ez ordaintzeak eragiten dituen inpaktuak

Liburu, egunkari, aldizkari eta partiturak berrerabiltzeagatik sortutako egile-eskubideen egoeraren azterketa (*Análisis comparado de la situación de los derechos de autor por usos secundarios de los contenidos editoriales en Europa*) Carlos III unibertsitateko Enpresa-ekonomia departamentuko Julio Cerviño irakasleak zuzendu du. Azterketan, obren berrerabilpenagatik ordainsaririk ez jasotzearen ondorioz, **Espainiako idatzizko kulturaren sektoreak lehiarako duen desabantaila** analizatzen eta kuantifikatzen da.

Izan ere, Espainiako egoera, beste herriekin konparatuta, kaskarra da; eta egoera horren arrazoi nagusia da jabetza intelektualeko eskubideak ez direla ordaintzen.

Eskubideen titularrek haien edukiak prezio ordaingarrian (tarifak Europako batezbestekoaren azpitik daude) berrerabiltzea ahalbidetu duten arren, **Espainiako egile eta editoreen egile-eskubideak ez dira modu egokian aitortzen, ezta ordaintzen ere.**

Ondorioz, Espainiako industria editoriala, Europako bere homologoekin alderatuta, **lehiarako desabantaila-egoeran** dago. Eta horrek **arriskuan jartzen du** demokrazia sendo baten euskarri den **idatzizko kulturaren iraunkortasuna:**



Egile-eskubideak ez ordaintzeak eragiten dituen inpaktuak

Diru-sarrerengalera

Ez badugu ordaintzen obrak berrerabiltzeagatik, eskubideen titularrek ez dute diru-sarrerarik jasoko bigarren mailako erabileren merkatuan (edukien berrerabilpenari dagokiona); izan ere, bigarren mailako erabileren merkatuan ez dute diru-sarrerarik jasotzen ezta ere obrak saltzeagatik.

Inbertsio txikiagoa

Egileek obregatik ez badute diru-sarrerarik jasotzen, gutxiago inbertituko da titulu berriak sortzeko; eta, gainera, edukien kantitatea eta kalitatea murriztu dira. Horrek inpaktu kaltegarria izango du hezkuntzan, kulturean, ekonomian eta demokrazian.

Lanpostu gutxiago

Egoerak efektu kaltegarria izango luke Espainiako ekonomian eta sektore editorialean lan egiten duten pertsonen bizikaltatean.

Egile-eskubideak behar bezala ez babestea

Titularrei ez badiegu ordaintzen haien obrak erabiltzeagatik, baliabide gutxiago izango dituzte haien egile-eskubideak betearazteko, eta horrek baimendu gabeko erabileren (edukien lapurreten) hazkundera ekar dezake.

Lehiakortasun-galera

Inguruko herrietan obren bigarren mailako erabilpena ordaindu egiten da. Herri batean hori egiten ez bada, herri horretako eskubide-titularrek ezin dute baldintza beretan lehiatu.

Inbertsio txikiagoa teknologian eta garapen digitalean

Egile-eskubideak behar bezala ordaintzen ez diren herrietako sortzaileek baliabide gutxiago dituzte teknologia- eta ekoizpen-kontuetan egunean egoteko. Orduan arrakala sortuko da herri horietako industrien eta beste herrietakoen artean.

Egileak erakartzeko zailtasunak

Ez baditugu ordaintzen obren bigarren mailako erabilpenak, beharbada sortzaileek eskubide hori babesten duten herrietan argitaratuko dute. Horren ondorioz, titulu berri gutxiago eta egile desberdin gutxiago izango genituzke.

Inbertsio txikiagoa hezkuntzan eta kulturean

Herri batean, eduki editorialen berrerabilpena ez ordaintzeak kultura- eta hezkuntza-edukiak sortzeko inbertsioa murriztea dakar; eta horrek herriaren gizarte- eta ekonomia-garapenari kalte egiten dio.





Tarifa ordaingarriagoak

Espanian, eskubideen titularrek haien obren berrerabilpena erraztu egiten dute, obrak berrerabiltzeko oso prezio ordaingarria eskainiz.

Halere, Espainian, eduki editorialak berrerabiltzeagatik, batez beste, Europan baino % 38,25 gutxiago ordaintzen da (haztapena erosahalmenak parekatuta egin da). Horrek esan nahi du, Europan ordaintzen den euro bakoitzeko, Espainian, 0,61 € ordaintzen direla, baldin eta liburu, egunkari, aldizkari eta partiturak berrerabiltzeagatik egile-eskubideak behar bezala ordaintzen badira.

Beraz, erabiltzaileek edukiak behar bezala ordainduko balituzte ere, erabilpen horien ordainsaria Europako inguruko herrietakoa baino txikiagoa izango litzateke.

Europako herriek eredu desberdinak ezarri dituzte eskubideen titularrei haien obrak erabiltzeagatik ordaintzeko beharrari erantzuteko. Horregatik, Espainiako ordainsari-ereduari jarraitzen dioten herriekin egin dugu konparaketa: Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Norvegia, Herbehereak, Erresuma Batua, Suedia eta Suitza.

			
	Espainia	Europako batezbestekoa (Espainia kanpo)	Bariazioa
Administrazio publikoak	10,31 €	10,07 €	% 2,38
Lehen-hezkuntza	2,16 €	5,57 €	-% 61,22
Bigarren-hezkuntza	3,34 €	6,60 €	-% 49,39
Hizkuntza-trebakuntza	2,10 €	6,70 €	-% 68,66
Oinarrizko musika-irakaskuntza	5,97 €	6,66 €	-% 10,36
Erdi-mailako musika-irakaskuntza – fisikoa	6,27 €	7,22 €	-% 13,16
Goi-mailako musika-irakaskuntza – fisikoa	6,47 €	18,05 €	-% 64,16
Oinarrizko musika-irakaskuntza – epartitura*	7,81 €	7,75 €	% 0,77
Erdi-mailako musika-irakaskuntza – epartitura*	8,12 €	7,80 €	% 4,10
Goi-mailako musika-irakaskuntza – epartitura*	8,32 €	30,59 €	-% 72,80
Liburutegiak (kopiatzea, eskaneatzea, zabaltzea)	0,06 €	0,17 €	-% 64,71
Liburutegiak (mailegua)	0,003 €	0,110 €	-% 97,20
Unibertsitatea**	10,35 €	10,23 €	% 1,17

Iturria: argitaratutako segmentuko tarifak eta Munduko Bankuaren datuak oinarri hartuta, egileek prestatutako taula.

* Musika-trebakuntzaren kasuan kantitateak ez dira alderagarriak, CEDROren musika-trebakuntzarako tarifek, baimenaz gain, ePartitura (partitura euskarri digitaletan eskaintzen duna aplikazio bat) bidezko edukia barne hartzen baitute.


** Unibertsitatearen kasuan, nahiz eta tarifa aplikagarria adierazitakoa izan, ohikoena da Espainiako unibertsitateek CRUE Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziarekin adostutako kopuru bat ordaintzea; hau da, ikasleko 1,79 euro. Akordio hori aldiari-aldiari berritzen da.



Eduki editorialen berrerabilpenaren batez besteko ordainsaria

Egile-eskubideen batez besteki ordainsariaren Europako rankinga

01		17,76 €	07		2,03 €	13		0,73 €
02		7,31 €	08		1,99 €	14		0,48 €
03		5,86 €	09		1,79 €	15		0,44 €
04		4,17 €	10		1,37 €	16		0,41 €
05		3,61 €	11		1,22 €	17		0,34 €
06		2,79 €	12		1,06 €	18		0,15 €



Europarantz, egile-eskubideen batez besteko per capita ordainsaria urteko 1,52 € da; Espainian, berriz, urteko 0,48 €.

Horrek esan nahi du, batez beste, Europako erabiltzaileek Espainiako erabiltzaileek baino hiru aldiz gehiago ordaintzen dutela eduki editorialak berrerabiltzeagatik.

Baina tarifen zenbatekoa ez da garrantzitsuena kasu honetan, baizik eta erabiltzaileek egile eta editoreei eskubideak ez ordaintzea.

Jendea ez dago behar bezala kontzientziatuta idatziko kulturako egile eta editoreei haien edukiak berrerabiltzeagatik ordaintzeko beharraren inguruan.

Kasu berezi bat: prentsaren barne-berrerabilpena

Alemania	Frantzia	Erresuma Batua	Espainia
16.600.000,00 €	17.000.000,00 €	44.055.116,40 €	1.221.000,00 €



Sektore publikoaren egoera Espainian

Zergatik da garrantzitsua sektore publikoak egile-eskubideak errespetatzea?

Lidergoa

Sektore publikoak lider eredugarria izan behar du jardunbide egokiak ezartzeko garaian. Sektore publikoak egile-eskubideak errespetatzen baditu, herritarrek eredutzat hartuko dute eta haien jokabidean **islatuko da**.

Araudia betetzea

Sektore publikoa bere araudi eta prozedura propioak betetzera **behartuta** dago.

Garapen ekonomiko eta kulturala

Sektore publikoa garapen ekonomikoaren eta kultura-sektorearen **erantzule** da.

Sektore publiko/pribatuaren ordainsaria lizentzien bidez eduki editorialak berrerabiltzeagatik: gerta litezkeen egoerak

Europako homologoek jasotzen duten ordainsariaren % **55,82**, batez beste, sektore publikoak ordaintzen du; Espainian, berriz, % **7,54**.

01

Gaur egungo tarifekin, zenbat diru biltzen du sektore editorialak bere edukiak egile-eskubideen lizentzien bidez berrerabiltzeagatik?

6,63 milioi euro, eta horietatik **0,50** sektore publikoak ordaintzen ditu.

02

Gaur egungo tarifekin, zer gertatuko litzateke sektore publikoaren eta pribatuaren **betetze-maila** inguruko herrialdeenaren parekoa izango balitz?

44,67 milioi euro, eta horietatik **24,93** sektore publikoak ordainduko litzuzke.

03

Europako batez besteko tarifarekin, zer gertatuko litzateke sektore publikoaren eta pribatuaren **betetze-maila** inguruko herrialdeenaren parekoa izango balitz?

72,34 milioi euro, eta horietatik **40,38** sektore publikoak ordainduko litzuzke.



Sektore editorialak egile-eskubideen bidez diru gehiago biltzearen ondorioak

Sektore publikoak eta pribatuak Europako beste herrietakoekin parekarriak diren ordainsariak ordainduko balituzte, horrek ondorio onuragarriak izango lituzke eremu editorialean eta lotutako beste eremu batzuetan ere.

- Inpaktu zuzena: baliabide ekonomiko gehiago industria editorialarentzat.
- Zeharkako inpaktua: baliabide gehiago lotutako industrientzat (hornitzaileentzat).
- Eragindako inpaktua: baliabide gehiago langileentzat eta, ondorioz, ekonomia suspertzea.

Horrez gain, Administrazioak 20 milioi eurotik gorako zerga-itzulkina jasoko luke.



Kontzeptua	Inpaktua	Zerga-efektua
Inpaktu zuzena	23.770.844,05 €	1.181.648,66 €
Zeharkako inpaktua	22.406.860,75 €	7142.186,86 €
Eragindako inpaktua	32.349.905,21 €	11.710.501,21 €
Inpaktua, guztira	78.527.610,01 €	20.034.501,21 €

Efektua, guztira: 98.562.111,22 €

Biderkatzaile efektiboa: 4,1463

Merkatu ilegala: Espainian eduki
editorialen lapurretak duen inpaktua

02





Eduki editorialen lapurreta digitala gora doa 2017tik

Qbo Investigación y Estrategia erakundeko zuzendari exekutiboa den Héctor Jiménezek zuzendutako *Piratería en línea de contenidos editoriales en español* txostenak azaltzen duenaren arabera, eduki editorialen lapurretaren eboluzioa eta gainerako kultura-edukien lapurretarena desberdina izan da. Hasieran, legez kontrako jarduera hori ale fisikoen kopian edo inprimaketan zetzan.

Baina aurrerapen teknologikoek industria editorialaren iraunkortasunari erasotzen dion legearen kontrako jarduera horren hazkundera eragin dute. Txostenak Europar Batasuneko Jabetza intelektualaren Bulegoaren (EUIPO) azterketak egiten dituen MUSO enpresak jakinarazitako eduki editorialak partekatzen dituzten legez kontrako webguneetarako trafikoaren gaineko datu objektiboak eta kultura-dukietarako sarbideak ditu oinarri, eta agerian jartzen du, **industria editorialak eta egileak ahalegindu badira ere eta obrak babesteko araudia hobetu bada ere, edukien lapurretak hazten jarraitzen duela.**



Eduki editorialen lapurreta digitala gora doa 2017tik

Legez kontrako webguneetarako sarbideen % 27,5 eduki editorialei lotuta daude; eta horrek esan nahi du % 59,14 hazi direla 2021etik.

Eduki editorialen legez kontrako webguneetarako sarbideen eboluzioa eta proportzioa, guztizkoarekin alderatuta

	2022	Kuota	2021	Kuota	Igoera
Eduki editorialak	59,2	% 27,53	37,2	% 21,10	% 59,14
Gainerako edukiak	155,8	% 72,47	139,1	% 78,90	% 12,01
Guztira	215	% 100,00	176,3	% 100,00	% 21,95

Internauta gaztelaniadunek beste herrietako erabiltzaileek baino legez kontrako webgune gehiago (% 15 gehiago) atzitzen dituzte.

Sarbideen intentsitatea, herriaren arabera

Herria	Webgune editorialen bisitak	Internautak, guztira	Sarbide-kopurua, internautako
Herri gaztelaniadunak	1.150.022.033	237.190.000	4,85
Gainerako herriak	14.930.211.267	3.543.737.000	4,21
Guztira	16.080.233.270	3.780.927.000	4,25
Proportzioa	% 8	% 7	% 115
Guztizkoaren gaineko kuota			
Gaztelaniadunak	% 7	% 6	% 114
Gainerako hiztunak	% 93	% 94	% 99




Hipotesiak

Erabiltzaileek eduki editorialak legez kontra atzitzeko arrazoiak argitzeko garaian, bi hipotesi ezartzen dira.

1. Zenbat eta kultura-garapen handiagoa, orduan eta eduki editorialen lapurreta gehiago

Legez kontrako eduki editorialetarako sarbideek behera egiten dute nabarmen kultura-garapen txikiagoa duten herrietan, % 59,81eko korrelazioarekin. Horrek esan nahi du jardunbideak adierazle kultural bati erantzuten diola eta, ondorioz, **gizarte-kontzientziaziorako politiken** bidez kudeatu daitekeela.

Bisita-kopurua, internautako, giza garapenen indizearen arabera






Hipotesiak

2. Zenbat eta BPG altuagoa, orduan eta eduki editorialean lapurreta gehiago

BPGren eta legez kontrako webguneetarako sarbidearen arteko korrelazio-koefizientea % 71koa da. Hau da, zenbat eta aberatsago, orduan eta legez kontrako kontsumo gehiago. Horrek erakusten du eduki editorialak ez direla arrazoi ekonomikoengatik lapurtzen. Gainera, hainbat ondorio ateratzen dira:

- Legez kontrako kontsumoa herriaren tamaina ekonomikoaren arabera da.
- Ekonomia indartsuek kultura-eskakizun handiak sortzen dituzte.
- Ahalmen ekonomiko handiagoa duten herriek iruzurraren kontrako politikak martxan jartzen badituzte ere, ez dira nahikoak.

Legez kontrako webguneen bisitak eta BPG





Jokabideari lotutako eragileak edukien lapurretan

Disonantzia kognitiboa

Gaizki dagoela jakinda, arrazoi praktikoengatik egiten da.

Egiazko informaziorik ez izatea

Herritarrek ez dakite antzematen kontsumitzen dituzten eduki editorialak legez kontrakoak diren ala ez.



Baimendu gabeko erabilerak eta ESG irizpideak: ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak

Ingurumen- inpaktua: karbono-aztarna

Pirateriak datu-zentroen baliabideak alferrik erabiltzea dakar. Horregatik, eduki editorialen pirateria murriztuko balitz, datu-zentroak iraunkoragoak izango lirateke eta ez lirateke gatazkan egongo ezinbesteko baliabide naturalen (besteak beste, uraren) erabilerarekin.

Gizarte-inpaktua: atzerakada idatzizko kulturari lotutako eskubideetan

Europako Batzordeak jarduera iraunkorrek eta sozialki arduratsuak identifikatzeko irizpideak zehaztu ditu, eta hainbat arau (esaterako, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna) betetzeko baldintza ezarri du. Aipatutako bi arauak sortze-lana errespetatzeko eta babesteko eskubidea eta betebeharra xedatzen dituzte. Zehazki, Ituneko 15. artikulua hiru eskubide aitortzen dizkio pertsona orori: kultura-bizitzan parte hartzeko eskubidea, aurrerapen zientifikoari eta haren aplikazioei onura ateratzeko eskubidea, eta sorkuntza zientifiko, literario edo artistikoen egile izateagatik dagozkion interes moralak eta materialak babes dakizkien eskubidea. Eduki editorialen pirateriak idatzizko kulturako egile eta editoreak babesten dituzten aipatutako oinarritzko hiru eskubideak urratzen ditu.

Inpaktua enpresa- governantzan: arauak betetzea

Sektore publikoa garapen ekonomikoaren eta kultura-sektorearen erantzule da. Gobernu korporatiboaren kudeaketa egokiak arauak betetzeko eta arriskuak mitigatzeko politikak, jabetza intelektualari lotutakoak besteak beste, barne hartzen ditu. Beraz, eduki editorialak berrerabiltzeko, egile-eskubideei dagozkien baimenak eskuratu behar dira. Bestetik, enpresako gailuak modu arduratsuan erabili behar dira eta ezin dira erabili eduki horiek legez kontra deskargatzeko.

Eduki editorialak berrerabiltzeagatik
ez ordaintzea eta edukiak lapurtzea
saihesteko soluzioak

03





Eduki editorialak berrerabiltzeagatik ez ordaintzea eta edukiak lapurtzea saihesteko soluzioak

Idatzizko kulturako egile eta editoreei haien obrak berrerabiltzeagatik jabetza intelektualeko eskubideak ordaintzen ez zaizkienez eta obren lapurreta digitala zabaldu denez, egile eta editoreak lehiarako desabantaila-egoeran daude. Hori zuzentzeko, neurriak hartu behar dira:

1. Edukien berrerabilpena modu egokian **ordaintzea** eta Administrazio publikoak prozesu hori **lideratzea**, gure inguruko herrietan gertatzen den bezala.
2. Administrazioan, sektore pribatu zein publikoan jabetza intelektualaren gaineko araudia betetzen dela gainbegiratzeko eta **kontrolatzeko** ahalmena eta baliabideak dituen organismo bat sortzea, besteak beste Frantzia gertatzen den moduan.
3. **Pirateriari** aurre egiteko legegintza-neurriak bultzatzea, plataforma teknologikoen eremuan modu arduratsu eta bizkorrean jokatzeko ahalbidetzen duten mekanismoak (mezularitza-zerbitzuak, Whatsapp besteak beste, barne) sustatuz.
4. Espainiako **ordainsaria**, pixkanaka, Europako batezbestekoarekin parekatzea.
5. Ditugun baliabideekin jabetza intelektualaren gaineko jardunbide egokiak gizarte-eremu guztietan eta, bereziki, hezkuntza-komunitatean **ezagutaraztea**.